

# **EDUARDO URZELAI ASTEGIA**

**ERRI-GIZONA**



**OLAZAR ETA URIBE TAR MARTIN**



**EDUARDO URZELAI ASTEGIA**

**ERRI-GIZONA**

## GIZON ERRI-ZALEA

Erri guztietan izaten dira aldi txarrak eta onak eta gure errian aldi txar bat ogeita amaseiko gudearen ondorengoa izan zan: Dana zan eraso, dana zan debekua, dana zapalkuntza. Orduan erriak arrisku aundia eukan gogoia galtzeko eta nortasuna bertan bera izteko.

Baiña, zorionez, olako aldi larrietan antxe agertzen dira erri-gizonak, gure lege zarrak alboratuak izan ziranean Arana'tar Sabin agertu zan antzera.

Beriz gure erri maite onek be sasoi aretan laguntzalle izango jakon erri-gizon bat izan eban: Eduardo Urzelai.

Onak, batzutan lagunak billatuta, beste batzutan umore ona agertuta, batzutan jakintza-arloan, beste batzutan jolasetan, erriari laguntza aundia emon eutson aurrera jarraitzeko. Ez zan izan laguntzaille bakarria baiña bai benetakoa.

Erriko sendi edo famili baten bizi izan zan, Kontxi beronen emazteagaz eta seme-alabakaz.

Baiña bere lana egiteko eta bere asmoak babesteko, zelan edo alan errian eta inguruan lurra artzeko "ALFA" izan eban bidea, baserritarrentzat askotariko lanabes motordunak saltzeko

zan etxea. Or oñarria ebala agertu zan orduko erakunde zapaltzailleen aurrean.

Baiña erriaren alde lan egiteko zaletasuna, lenagokoa eban: 13 urtekoa zala, Berriz'en eskolarik ez egoalako, bere etxean maisu-lana egiten asi zan eta 14 urtekoa zala 20 ikasleri irakasten eutsen bere etxeke kamaran. Orretan ebillala eta bero-aldiren baten, ikasle bateri belerri-ondokoa emon eutsan eta urrengo egunean osabea etorri jakon lotsak emoten eta gogor berba egin eutson. Urrengo egunean onen loba ikasleari auxa esan eutson: "Zoaz etxera eta osabeak irakatsi daitzula". Ama etorri jakon parkeske eta len lez aurrera jarraitu eben.


Orduan irabaziak urriak ziran et irabazbide lez, etxean ondarra edo área egitea asmau eban. Berak eroaten eban are edo ondar ori errietara an etxegillei saltzeko.

Gaztetatik agertzen jaku ba Eduardo laguntzaille ta asmamen aundiko.

## SIRVIENDO AL PUEBLO

En todos los pueblos suelen surgir en momentos difíciles hombres que saben comprender la situación y acompañar en la necesidad. Desde la guerra del 36 nuestro pueblo estaba en uno de esos momentos en que todo era persecución, prohibición y opresión.

Durante esos años difíciles, por suerte, surgió en Berriz un hombre que supo alegrarlo y darle ánimos. Fue Eduardo Urzelai.



*Eduardo Urzelai Astegia. Berriz erriaren laguntzaille 35 urtean.*

En diversos campos, solo o acompañado, supo crear humor, fomentar la cultura, ofrecer diversiones... en fin, de diversas maneras muy ingeniosas acompañar al pueblo.

Vivía dentro del pueblo, dedicado a su familia formada por su esposa y sus hijos.

Su trabajo en ALFA, que se dedicaba a vender aperos a los labradores, le sirvió de ayuda para ello.

Su afán por hacer algo a favor del pueblo

le viene desde muy joven. Ya a los trece años le encontramos dando clases porque en el pueblo no había maestro y a los catorce tiene ya 20 alumnos a los que enseña en el camarote de su casa. El recuerda bien aquella bofetada pedagógica que dio a un alumno. Tuvo que escuchar la protestas del tío, pero al día siguiente le mandó a casa diciéndole: "Que te enseñe tu tío". Vino luego la madre del alumno y todo terminó en una fácil reconciliación.

Pero sus ingresos eran muy escasos y tuvo que ingeniar: Se le ocurrió hacer en casa arena para obras y él mismo la llevaba a los constructores de Berriz y pueblos vecinos.

Desde muy joven le vemos lleno de imaginación y voluntad de servicio.

## IDI-DEMAK

Eduardo Urzelai, gure erritarra, eratzaille ona izan da, ondo ekian gauza batzuk eratzeko artu bear diran bideak zeintzuk diran: Zabalkundea ondo egin, orretarako izpar-ingiak, iragarki edo kartelak, irratia, ekonom i-arazoak ondo bideratu eta olakoak. Eta guzti orrein gaiñetik, iraunkorra zan, asten diran ekintzai jarraipena emon, beti ekin. Ogeta amabost urtean iraun dau erri-kirolak eratzen eta orrelan lortu eban kirol oneik goi-maillara jasotea.

Iñoz egiten eban berak kasetari-lana be, baiña geiago zan bere zeregiña beste kasetari ospetsu batzukaz alkartuta jokatzea. Sarritan ikusten dogu orduan entzute aundikoak ziran

## PRUEBA DE BUEYES

Uno de los campos en que mejor aparece la capacidad de Eduardo Urzelai, es, sin duda, en las pruebas de bueyes, dentro del deporte rural. Bien sabía él organizar la propaganda escribiendo y acudiendo a los periodistas más conocidos de la época. Recordemos a Jose Luis Bengoa Zubizarreta, Munitibar, Miguel Ángel Astiz y a Basarri en Nere Bordatxutik. Acudía a las radios locales, preparaba los carteles y planeaba la economía. Y a todo ello hay que añadir su constancia a toda prueba que aparece bien claro en el hecho de haber organizado durante 35 años estas pruebas.

Contó con un trampolín muy importante



*Erri-kirolak bultzatzen idi-ciema.*

kasetariakaz alkartuta: Jose Luis Bengoa Zubizarreta, Munitibar eta Migel Ángel Astiz, esaterako, eta "Basarri" ospetsuaren "Nere Bordatxutik" kasetari-arloan be aurkitzen dogu.

Begiratu dagiegun lenengo idi-dema edo probai.

"ALFA" saria izan zan erri-kirol au suspertze-ko artu eban bidea. "ALFA" etxeari berak eukan lan-tokitik laguntzen eutson eta baserritarrakaz zer-ikusia aundia eukan lana zan. Etxe orren zeregiña baserriko lanean bear diran lanabesak eta tramankuluak eskintzea ta saltzea zan orrelan baserriko lanari aurrerapenerako bidea zabaltzen eutsola.

Idi-demak edo probak eratzeko urtero eskintzen eban sari ori eta probalaririk ospetsuenak erantzuten eutsoen bere deiari: 1976n. urteko zezeiliaren 25n. egunean ospatu zan Berriz'en probaketa ospetsu bat Bilbao eta Lañe bizkaitarrak eta Otegi ta Belarreta giputzak barru zirala eta egun aundi ori gertatzeko Oliden, Polipaso eta Urtain izan ziran leiaketan Larrondo'ren erronkea entzun ondoren.

Urrengo urtean, zezeillaren 28n. egunean ospatu zan IX Alfa Saria eta M.<sup>n</sup> Dolores Katarain ¡zan zan irabazle.

1990n. urtean Durangoaldeko Sari Nagusiaren leiaketa izan zan eta sari ori dirutan emon zan. Milloi bat pezetakoa zan. Elorrio'n be egin zan ekiñaldi bat irailaren 7n. egunean eta Madariaga'ko Ezkerra eritxona izan zan irabazle. Berriz'ko ekiñaldian Belarreta izan zan garaille, Abadiño'n Arientza, Laukiniz'en Madariaga'ko Ezkerra... Orrelan eratzten ziran ekiñaldiak erriaren pozerako eta erri-kirolen osperako. joan dan 1999n. urtean azkenengo.

Zatitxu au amaitu baiño len, aitatu-bearrekoa da Urtain ospetsua pozik etorten zala leiaketa oneitara bere idiakaz, ikubilka edo boxeo bidea artu baiño len.

para toda esta actividad. El trabajaba para ALFA que era una casa dedicada a ofrecer a labradores instrumentos de trabajo. Fue el Premio ALFA el que puso en movimiento a los probalaris durante todos esos años.

Estas pruebas de bueyes fueron organizadas por él en 35 años en pueblos de Bizkaia: Berriz, Arretxinaga, Markiña, Abadiano, Elorrio, Berriatua, Laukiniz, Maruri, etc., y en distintas ocasiones salieron vencedores Bilbao, Lañe, Otegi, Belarreta, Oliden, Polipaso y hasta el mismo Urtain, años antes de dedicarse al boxeo. También hemos de recordar a Arientza y al Zurdo de Madariaga.

Fue una de las maneras con las que Eduardo animó la vida social de aquellos años nada fáciles.

\* \* \*

## DURANGO ALDEKO ATZERATUAK

Ogeta amabost urte luze orrein barruan gure Eduardo'k arazo askori begiratu eutsen, baiña begikoen izan eban bat atzeratuen arazoa zan, gorputzez naiz gogoz inguruko gizakiak baiño beeragoko mailla baten egozanen arazoa.

Beti izaten dira gizartean zergaitik edo agaitik atzeratuta geratu diranak, baiña aldi aretan gizartean ez eutsen begiratzen. Etxekoak bakarrik eroan bear izaten eban arazo orren astuntasuna. Sarritan, gaiñera, etxean atzeratu bat egoanik iñok jakiterik be ez eban nai izaten.

Gure Eduardo Urzelai'k arazo larri au ikusi eban eta laster sortu jakon atzeratuai eta euren etxeai laguntzeko gogo bizia.

1973'ko urtarrillaren amargarren egunean plazaratu edo erri-aurrean agertu eban arazo au: Lenengo Durango'ko Gizarte-Etxean ipiñi zan irakasleku bat, baiña bear-izanaren zabalkundea egin zanean, laster eskiñi eutsoen bizileku bat. Gero erritar batek ikastetxea egiteko lurra eta 100.000 pezeta emon eutsozan. Lur orretan egin zan atzeratuen ikastetxea.

Alde batetik eurari laguntzeko oleak edo talle-rrak bear ziran eta ori egitea be laster lortu zan, baiña emen be, idi-demetan ikusten zan lez, Eduardo'ren ardura bereizi bait agiri da. Kontuak argi ta garbi eroateko ardurea.

Eduardo izan zan alkarte onen lenengo lendaria.

## CAMPANA EN FAVOR DE LOS SUBNORMALES DEL DURANGUESADO

Una de las necesidades que en su entorno vio Eduardo fue la situación de los subnormales o disminuidos psíquicos o físicos. Nadie se acordaba de ellos y de sus familias. Incluso las familias ocultaban la existencia de disminuidos.

El 10 de enero de 1973 empezó la campaña en el Duranguesado con una modesta instalación en la Casa Social, pero organizada la propa-

ganda hubo alguien que donó una casa, 100.000 pesetas y un terreno. Se pudo instalar centro de enseñanza incluidos los talleres.

Eduardo fue primer presidente de esta asociación. La campaña iba bien y pudo dedicarse a completar cosas: Preparar un Ideario,

basado en el reglamento que le dio en el Obispado D. Javier Astorki. Ahí aparecen sus dos motivaciones: Dar gracias por nuestra salud y ayudar a los disminuidos.

El primer centro se llamó "Txibilla", siguiendo la insinuación de un disminuido.

Nuevamente se vio obligado a buscar dinero. Para ello organizó las colectas en las parroquias de Bizkaia para este fin, organizó partidos de pelota a mano y cesta punta con los mejores pelotaris pro subnormales y para junta local de Beneficencia de Berriz en los que los pelotaris renunciaban gustosos al cobro, dos festivales de boxeo con Urtain cuando era campeón de Euro-



*Durango-aldeko atzeratuen ikastetxea.*



*Laguntza billatzen eta sariak banatzen.*

Atzeratuen alde lan egiteko erakunde au baijoian aurrera, indar barria artzen, guztien pozera-ko eta gauzak argi geratu eitezan 1973n. urte beratan asmo edo "Ideario" a agertzeko agiri bat argitaratu zan. Orretarako Eleizbarrutian arlo onetan arduradun zan jabier Astorki izan eban laguntzaille eta onek eskiñi eutson arauditik atera eban asmoen agiria edo idearioa. Emen agertzen dau lan au egiteko zioa: Lenengo jaungoikoari eskerrak emon geu gorputzez eta gogoz osoak garalako eta bigarren olako zori onik izan ez dabenai lagundu.

Lenengo irakasketak asteko atondu zan etxeari Txibila ipiñi eutsoen izena, atzeratu baten berbeari jarraituz. Gero Matiena'n egin eben ikastetxe barri bat eta au asi zan egunean dei berezia egin eutsoen gure Eduardo'ri.

Ba-dago jose Maria Otxagabia osagilleak egin-dako eskutitz bat atzeratuen alde egiten dauan lanagaitik Eduardo'ri eskerrak emoteko.

pa, pro subnormales y para junta Local de Beneficencia de Berriz. Se inventó la quiniela para prueba de bueyes y hasta Urtain en sus mejores días boxeó dos veces en Berriz.

\* \* \*

## DANTZA-SARIKETAK

Ainbat urte igaro ziran guda-ostean euskal jakintza-arloko ekintza guztiak galazota egozala, baiña lenengoz askatasun apur bat lortu eban arloa, dantzearena izan zan. Gure erria, izan be, oso dantzaria da eta sariketa oneik eratzen ez ziralako tamal aundia egoan.

1954n. urtean lortu eban Eduardo'k Berriz'en dantza-sariketea eratzea eta arrezkero 35 urtean utsik egin barik eratu dau eta ospetsua izan da Berriz'ko sariketa au.

Erriko dantza-taldeak 1945n. urtean Londres'era ixango bat egin eban.

Esku-artean daukagu Berriz'tar batek idatzitako eskutitza: 35 urtetan sariketa oneik eratu dauzako Eduardo'rentzat bere izena darioan kale bat eskatzen dau.

Berriz'ko dantza-sariketak Bizkai guztian ospe aundia artu eban. Bide batez euskaltasuna agertzeko eta erriak alkartzeko bidea be ba-zan.

## CONCURSOS DE JOTAS

Aunque todas las manifestaciones culturales vascas encontraban grandes dificultades administrativas, en Berriz existía un grupo de espata dantzaris que ya en 1945 realizó una excursión a Londres.

Tomando la iniciativa que ofrecía el pueblo, Eduardo Urzelai intentó organizar un concurso de jotas el año 1954 y desde entonces lo ha organizado en 35 años. Este concurso adquirió merecida fama en toda Bizkaia y fuera de ella. Había tres grupos por edades: Infantiles hasta 14 años, adultos de 14 a 65 y veteranos de 65 en adelante. Hubo que suspender el último por desavenencias entre premiados.

Tenemos entre manos una carta de un entusiasta berriztarra que pide que se dé el nombre de una calle al incansable organizador de estos concursos.

No podemos menos de recordar que la celebración de estos concursos contribuyó poderosamente a mantener el carácter peculiar de Euskalerrria a la que un conocido escritor francés definió como "pueblo que baila a ambos lados del Pirineo" (Voltaire).



*Dantza sariketa 1953 urtarrilean sariak banatzen.*





Dantza-sariketa: umeen sariak. Ermu'ko ume abeslariak



Dantza-sariketa: gazteen taldekoak.

## GURASOAK ETA JUBILATU AK

Erri-agintaritzan edo demokraziaren aurretik ez zan erreza izaten, erriari bizitasuna eta adorea emoteko taldeak sortzea. Sarritan ez egoan beste biderik Eleizearen babespera sartzea baiño, Eleizgiroan askatasun geitxuago egoan eta ostopoak txikiagoak izaten ziran, batez be arduradunak eta ekintzailleak bear ziranean.

Berriz'ko Erri-Ongitzarako Batzordearen sortzaille dogu Eduardo eta ortik beste asmapen asko agertu ziran. Batzorde ori bide zala alegin aundiak egin ebazan errian gizarte-lana egiteko eta orretarako diru-laguntza lortu bear izaten eben, esaterako jdi demak eta onein artean jraunkorrenak ziranai sariak eskiñita. Berau da arlo onetan Bizkai-guztitan lenengoa demalarien arteko jokatzek sortu ebazana. Oneik gero toki guztietara zabaldu ziran. Eta beti or ateraten zan dirua dana Erriko Ongintza-Taldeak eratzen ebazan ekintzetarako izaten zan. Ortik eratu ebazan eskuzko ta zestazko pelota-jokoak, pelotaririk onenak ekarrita eta oneik ezer irabazi barik izten eben dirua Batzorderako. Ikubilka-jokoak be eratu ebazan orretarako orduan Europa'ko Txapeldun zan Urtain ekarrita be bai.

Erriko Ongintza Batzorde orretatik urten eban Eduardo sortzaille dauan jubilatuen taldeak be eta "Gure Izerdia" izen egokia ipiñi eutsan, jubilatuek artzen eben saria ezerezkeri bat zan eta arduradunak bakarka eta etxetik urten barik bizi ziran. Alkartzeko etxe bat bear eben. Bizkai'ko Aurrezki-Kutxara joan zan Eduardo laguntza-eske, baiña ezetza emon eutsan. Azkenean lortu eban bere elburua: 1983n. urtean zabaldu zan "Gure Izerdia" jubilatutaldearen etxea.

Berriz'ko Udal-Batzean Gurasoen irurenetik Ziñegotzi zala Durango-aldeko Erri-Alkartean kideko izan zan eta Anbulantzi bat ekartea lortu eban.

Olako ekintzak aurrera aterateko beti izaten zan lenengoa.

## PADRES Y JUBILADOS

La creación de asociaciones era difícil bajo la dictadura. Por una parte, los responsables tenían que jurar los principios del movimiento y por otra había trámites desagradables como el certificado de penales. Una salida posible era acogerse a la Iglesia que gozaba de algunos privilegios.

Urzelai fue fundador y presidente de la junta Local de Beneficencia de Berriz y de ahí surgieron muchas iniciativas loables. Se esforzó por realizar a través de esta junta una labor social importante y para ello trató de buscar medios económicos organizando pruebas de bueyes con premios de regularidad. Él es el inventor de las quinielas de estas pruebas que hasta esas fechas no existían y luego se han difundido. Todos los beneficios eran para la junta local de Beneficencia de Berriz, tanto en partidos de pelota a mano y cesta punta con los mejores pelotaris como festivales de boxeo con Urtain cuando era campeón de Europa.

Una de las iniciativas que surgió de la junta Local de Beneficencia fue el Hogar del jubilado del que es fundador Eduardo y que se llamó "Gure Izerdia".

Las personas de edad cobraban una jubilación muy pequeña y estaban muy diseminadas, diríamos que metidas en casa. Necesitaban un club. Acudió para fundar este Club a la Caja de Ahorros Vizcaína pero su petición fue desatendida porque se estaban realizando otras obras sociales. También fue negativa la respuesta del Ayuntamiento. Pero el empeño logró al fin su objetivo. En 1983 pudieron inaugurar el Hogar del jubilado.

También pudo lograr un servicio necesario para la Mancomunidad del Duranguesado, siendo miembro de la misma como concejal del Tercio Familiar de Berriz: una ambulancia.

En todas estas actividades sociales y benéficas estuvo muy presente Eduardo Urcelay.



Gurasoen taldea sortu eban Berrizko Ongintza Batzordearen ondoren lez.

## IRAKASKINTZA

Guztiok dakigu zelako garrantzia daukan irakaskintzan errien aurrerapenean eta ba-dakigu, baita, arlo onetan oso atzeratuta egon garala: Eskolak alantolan ebiltzazan, ez egoan Bizkai osoan erdi-maillako Ikastetxe bat baiño eta Ikastetxe Nagusirik be ez, josulagunena zan Deustu'koa baiño. Titulu bat atera nai eban euskaldunak Bizkai'tik eta Euskalerritik kanpora joan bear izaten eban eta ori ordaintzeko almena gitxi eta aukeratu batzuk baiño ez euken.


Gure Eduardo Urzelai beti arduratu zan arazo oneri begira. Esan dogu guda ostean, gure erria eskola barik egoanean, bere etxeko kamaran ipiñi ebala eskolea eta bera izan zala maixu, oraindiño amalau urte be ez eukazala. Esan dogu, baita, irakaskintzan txartoen egozane alde, Durango-aldeko atzeratuen alde, zelako ekintza bete eban.

Baiña ekin daiogun geitxuago arlo oneri.

1972n. urte inguruan Nikolas Learreta jaunak eskiñi eutson arlo onetan ekintza aundi bat asteko aukerea: Ikastetxe on bat egiteko lurra emon eutson. Baiña 11 milloi pezeta bear ziran olako ikastegi on bat egiteko. Nondik atera? Aldundira jo eban lenengo eta milloi bat emon eutsoen. Zine bat eukan errian eta antxe batu eban erria egoerea azaltzeko eta erritarren artean kuotak ezarri ebazan. Erritar askori ogeta bost ogerlekoko maillego bat eskatu eutsen, interés edo obari barik eta ogei urtegarrenean ordaintzekotan. Eta zenbat olako asmakizun!

Zori onez, LEARRETA-MARKINA ikastetxea egin zan.

Esku-artean daukaguz jose M.- Odiaga'k eskerrak emonez egin eutson eskutitza eta eskerrak emonez askok izenpetuta dagoan agiri bat. Ikastetxe onetako Taldeak oorezko bazkide izendatu eben.



Learreta-Markina ikastetxea egin eban erritarren laguntzaz. Aldundiak milloi bat emon eban.

## ENSEÑANZA

Es bien conocida por todos la gran importancia que tiene la enseñanza en la promoción de los pueblos y sabemos también el gran retraso que llevábamos en este punto: Las escuelas funcionaban sin gran entusiasmo, sólo había para toda Bizkaia un Instituto de Enseñanza Media en Bilbao y no teníamos ni una Universidad en el País Vasco, si exceptuamos la Universidad Privada de Deusto. Era muy difícil acceder desde la base a un título universitario. Eso sólo era accesible para unos pocos escogidos.

Eduardo Urzelai se preocupó de este problema a su nivel. Recordemos que a los catorce años instaló en su camarote una escuela, la única de entonces. Recordemos lo dicho sobre la enseñanza de los disminuidos del Duranguesado.

Pero algo importante nos queda por decir.

En 1972 D. Nicolás Learreta le ofreció un terreno para erigir un centro de enseñanza. Pero se necesitaban 11 millones de pesetas para emprender la obra. ¿De dónde se podían sacar? Acudió a la Diputación que le dio una subvención de un millón. Reunió al pueblo en el salón del cine que tenía y les explicó la situación. Consiguió suscripciones populares a cuota, distribuyó documentos de préstamos de 25 duros sin interés y pagaderos a los 20 años y sabemos otras estrategias que él utilizaba. ¡Había imaginación!


Afortunadamente El Colegio Learreta-Markina se construyó para gran beneficio de Beriz. Y Urzelai fue nombrado más tarde socio n.º 1, "Honoris Causa".

Tenemos entre los documentos una carta de Jose M.- Odiaga que le manifiesta su gratitud y un documento con varias firmas de profesores que reconocen el beneficio de esta realización, nombrándole socio de Honor.



## UMORE ONA

## SIEMPRE CON BUEN HUMOR



*Arrijasotzailleak erriko jaietan.*

Iñoz entzun dautsaguz Eduardo'ri oneik edo onein antzeko berbak: "Lenago umore ohea egoan" edo "lenago obeto jolasten zan jentea". Orregaitik beti egiten izan dau alegiña jaietan eta olakoetan umore ona ugari izan daiten. Zelan lortu ori? Ona emen ekintza batzuk:

Noizean bein jaietarako egitarauak umorezko ikuspegi bategaz egin. Erriko jaietarako, idi-probetarako, ta abar; idi-probetako arria eroan giza-taldeen artean baiña seirak buru-argidunak, sariak: 1.<sup>o</sup> sei txarri-buru, sei piper-min, sei bonbil arda, sei naranja, sei farias ta sei txola edo kopa. 2.- Sei txarri-anka aurrekoak eta sei atzekoak, sei tangada orio, sei barakatz, sei bonbil arda, sei ogitxu, sei mandarina eta sei farias. Eta abar...

Jai-aldi ospetsuak eratu ebazan arri-jasotzaleakaz

Hemos oido decir a Eduardo que "antes había mejor humor, la gente se divertía más". De ahí su esfuerzo por fomentar con actividades este buen humor. Recordemos algunas:

Programas de fiestas y pruebas en clave humorística, pruebas de arrastre de piedra con grupos de personas y con premios muy pintorescos, organizó varios festivales de levantamiento de piedra y de aizkolaris que fueron gran atracción en las fiestas. Fue el primer presidente del Club Deportivo Fútbol de Berriz. Publicar una esquila cuando la pareja de bueyes de Ezpilla de Barinaga empezó a decaer. Pero sobre todo "la elefanta".

El día 3 de junio de 1963 se presentó al Circo Milan que estaba en Bilbao, preguntó por el jefe y una vez en su presencia, le dijo: Quiero un elefan-

eta aizkolariakaz eta olako jai-aldiak jentetza aundiak ekarten ebezan errira. Berau izan zan Berriz'ko futbolaren kirol-taldean lenengo lendakaria.

Idi probaren bat txarto joan danean (Barinaga'ko Espilla), il-txartela edo eskelea ipiñi eban izparringian. Baiña barre-biderik ospetsuena elefante emearen aupadea izan zan.

Bein baten 1963n. urteko bagillaren 3n. egunean joan zan Bilbao'ra Milan Zirkua egoan lekura eta ango buru zanagaz berba egitea eskatu eban. Etorri jakon jaun dotore ori eta gure Eduardo'k esan eutson: Elefante bat bear dot. Eta esango dautsut zertarako. Idi probetan leiaketa edo norgeiago bat egiteko. Eskari onegaz zurtz eginda geratu zan Zirkuko Nagusia. Baiña ez eban ezetik esan batez be nik 25.000 pezeta ordainduko neutsola esan nebanean.

Egun batzuk bear nebazala esan neutsan, zabalkundea egiteko eta dana gertatzeko. Eurak Bergara'ra joateko ziran, baiña gutzat bardin zan elefantea Bergara'tik ekartea. Antzua'gaz berba egin neban errokea egiteko eta amabost egunean egin zan zabalkundea irratitik. Giroa bero-bero egoan eta guztiak, errikoak eta kanpokoak, probalekuan elefantea ikusteko gogo biziagaz.

Joan giñan Bergara'ra elefantea ekarteko eta gertu egozan. Geu aurretik joateko esan euskuen baiña gauzea ziur nai gendun eta eurak aurretik eta




*Urtain ikubilkari ospetsua, orretan Europa'ko txapeldun, eta probalaria sarritan etorri zan Berriz'era, Eduardo'k ekarrita, ekintzai laguntzeko.*

te y le voy a decir para qué. Quiero establecer un desafío entre la pareja de bueyes y la elefante en tiro de piedra de arrastre. El ponía cara de extrañeza pero se animó cuando le ofrecí 25.000 pesetas. Yo necesitaba tiempo y me dijo que se trasladaban a Bergara. No nos importaba mucho traer la elefante de Bilbao o de Bergara y cerramos el trato. Luego vino la propaganda en prensa y radio durante 15 días y hubo que preparar el aparejo necesario para la elefante. Llegado el día fuimos a Bergara y nos estaban esperando. Les enviamos por delante con la elefante y les seguimos para



*Pelotariik onenak, ekintzai laguntzeko, doan eskintzen eben euren trebetasuna.*



*Eíefantea ekarri eban Bergara 'ko zirkutik, idi-bikotearen aurka leiatzeko.*

gu atzetik etorri giñan Berriz'era. Iges-aldi bat be egin eban elefanteak, kalerik kale bildurra sartuz, baiña azkenean eldu zan eguna eta elefanteak 9 untze egin ebazan, Antzua'ren idiak baiño gitxia-go. Baiña beste proposamen bat egin jakon Antzua'ri: Arria ara ta ona erabilli barik, bira egiñez erabilteko. Orretan eíefantea jzango zan geiago. Arria 1.900 k.'koa barik 4.000 koa dala.

Eíefantea gelditu egin zan eta galdu erronkea, baiña Berriz'ko erriak eta ingurukoak jai-giroan egun pozgarria igaro eben.

Erria poztuteko beste bide bat trikitrixa ekartea izan zan. Eres-mota onek asko alaitzen dauz jaiak.

Amaitzeko, Olinpiada alde batera itzita, talde bi gogoratuko doguz, barre eragiteko eta umore oneko taldeak: "CENTUR. S:0:J: taldea bata eta "Los bien concebidos" edo "ondo sortuak" bestea. Azkenengo onek bazkideen jaiotzatik urteurrena ospatu barik, bakoitza sortu izan zanetik urteak eta egunak kontauta ospatzen eban eta Taldearen buru zanaren izena "Parabobo Mayor" zan.

Txantxetako gauzea izan ez arren, gogoratu dai-gun emen Erriko Pelota-Lekuaren askundea edo inauguraziñoa, 1973n. urteko bagillaren 4n. egun-ean. Joko-aldirik onenak izan ziran eta ateraten zana Durango-aldeko atzeratuen ekintzarako.

asegurarnos. Llegamos sin novedad, pero ya en el pueblo la elefanta salió de paseo con sorpresa de todos.


Aquel día, se reunió un gentío enorme en el pueblo y ganó Antzua contra la elefanta que en un momento, al sexto clavo, se paró. Volví a retar a Antzua con otras condiciones: recorrido circular de la piedra y 4.000 kg. de peso en lugar de 1.900. No se realizó el desafío.

También alegraba al pueblo el trikitrixa que se traía y la olimpiada que se organizó, pero terminemos este apartado recordando dos asociaciones humorísticas: CENTUR - S.O.J. y "Los Bien Concebidos". Estos últimos celebraban el cumpleaños nueve meses antes de la fecha del nacimiento y a su presidente le daban el título de PARABOBO MAYOR: Todas estas asociaciones tenían su reglamento, también en clave de humor.

\* \* \*



Berrizko futbolaren kirol-taldean lenengo Lendakaria izan zan.



Dana umorez.



Errí-kirolen artean, arri-jasotzailleak be euren txanda izaten eben jaietan.

## ERRI-AGINTARÍTZAREN GIROAN EN LA DEMOCRACIA



*Ardantza Lenciakariari ikustaldia domina bat eroateko.*

Bein baiño sarriago agertzen da agintaritzza gogorraren aldi aretan Eduardo'ren bizitzan eta ekintzetan, antxiñako idazle batek esan ebana: "Serbitzaille ona benetan, agintari onak ba'le-go". Orregaz esan gura da, orduan eukazan agintariak ez ebela erantzuten bear zan bestean. Egia esateko, eskuarteko gitxiago be ba-euken, baiña agintariak aukeratzeak eta eurai baldintzak ezarteak be ba-euken orretan zer-ikusia.

Orregaitik, 1975n. urtea ezkerro itxaropen pozgarri bat sortu zan gure erri-zalearen barruan. Berau ez zan zuzen-zuzen agintzera sartu baiña bai eurakaz alkar-lan ugaria egin. Agertu daiguzan ezaugarri batzuk.

Bizkaiko Jaunerriaren Batzar Nagusietan Aldun izan zan 1983-1987 urteetan (II Lege-aldian).

Atutxa'tar joan Mari'gazko artu-emona zarra zan, aureski-kutxan lan egiten ebalako eta aurrezki kutxak sarritan eskintzen ebezan laguntzat Artu-emon au ez eban jzti Joan Mari agintaritzza-arlorra sartu zanean.

Ardantza'tar Jose Antonio Lendakari zala, domina bat berari eroaten agertzen jaku argazki baten. Ezaugarri bat da ori eta artu-emon sako-nagoak adierazten dauz.

Más de una vez aparece en la vida y actividades de Eduardo la queja por la poca disposición de apoyar sus proyectos por parte de las autoridades. Nos viene a la mente aquella expresión clásica: "¡Qué buen vasallo si hubiera buen señor!

Por eso, el año 1975 fue año de esperanzas. No entró directamente a la política de gobierno pero se relacionó muchas veces con los que el pueblo colocaba en puestos de gobierno. Fue apoderado de las Juntas Generales del señorío durante los años 1983-1987 (II Legislatura)

Su relación con Juan Mari Atutxa era antigua porque este trabajaba en una Caja de Ahorros y las actividades de Urzelai necesitaban el apoyo de esta clase de instituciones que tienen fondos para obras sociales. Y esta relación no ha sido menor cuando Juan Mari entró en la política.

Siendo Lendakari Jose Antonio Ardanza, acudió a entregarle una medalla. Este hecho supone relaciones más profundas.

Todos conocemos, más o menos, la labor social realizada desde las Juntas Generales por Augustin Zubikarai, que hoy lo tenemos retirado a causa de una grave y larga enfermedad y





*Bizkaiko Batzar Nagusietan batzarkide jzan zan (1983-1987) bigarren lege-aldian.*

Bizkaiko batzarretan eta Aldundian lan aundia egiten izan dau Augustin Zubikarai ondarrutarak. Gaur eta aspaldion, zori txarrez gaiso txar batek jota dago ezer egin eziñik, baiña sarritan beragaz alkartzen izan da Urzelai, maiaren inguruan be bai, urtero, euren jokabideak artzeko. Beste ikuspegi batetik begiratu ezker, Augustin'ek ba-dauko gure Eduardo'ren antza. Bera be erriaren laguntzaille aspertu-eziña jzan da Ondarroan eta Bizkaia'n. Biak izan ziran batera Batzar Nagusietako Aldun.

Eta Xabier Arzalluz bera be agertzen da argazkietan gure erritar onegaz.

Agintariengana urreratzea sarritan norberekeri-usaiñaz agertzen da, baiña gure kasuan erriari laguntzeko bideak billatzeko era bat baiño ez da izan eta laguntza ori sarritan aurkitu dau erri-zale onek, bai gure erriaren barruan eta goragoko mailletan.

Eduardo, que era apoderado de las Juntas Generales por el Duranguesado, aparece muchas veces en reuniones con Augustin. También en comidas de trabajo que celebraban cada año. Son dos vidas paralelas que coinciden desde dos puntos de vista en trabajar por el pueblo.

El mismo Xabier Arzalluz aparece en las fotografías con Eduardo.

Este acercarse a las autoridades se interpreta a veces como algo interesado, pero en nuestro caso se trata de buscar ayudas, tanto en Berriz como en otras instancias, para colaborar en el desarrollo del pueblo.

\* \* \*

## ADISKIDETASUNA TA ESKER ONA AMISTAD Y GRATITUD



*Omenaldi-egunean askok agertu eutsen esker ona, batzuk ezin etorri izan ziran. Emen Munitibar'en esker ona artzen.*

Berriztarrak biotz onekoak dira eta Eduardo'k erriaren alde egin dauan lana esker onez artu dabe geienak. Eduardo'k errian eta kanpoan adiskide ta laguntzaille asko izan dauz.

Esker onaren ezaugarri izan dira egin jakozan omenaldiak, batez be 1974n. urteko orrillaren ogeta bigarren egunean egindakoa. Erriak ta lagunak agertu eutsoen biotz onak samurtu egin eban Eduardo eta ez eban izan adorerik eskerrik asko! esateko baiño.

Gogoratu daiguzan adorea emoteko idatzi dautsoezan eskutitzak, batzuk omenaldi orretara ezin etorria eta beragaz batera egotea agertzen dabe, asko beste egun batzutan eta beste zio batzukaitik idatziak dira.

La amistad y la gratitud no son valores menospreciados en la sociedad, menos en Berriz. Testigo de ello ha sido Eduardo en toda su vida. Recibió muchísimas cartas de gratitud y ofrecimiento amistoso, especialmente aquel 22 de mayo de 1974 cuando le rindieron homenaje. Eduardo estuvo emocionado y sólo pudo pronunciar una palabra: "Gracias".

Recordemos firmantes de cartas que ese día manifestaron su pesar por no acudir o mensaje de animación, gratitud y felicitación que recibió en diversas ocasiones.

Periodistas renombrados de aquellas fechas como Miguel Ángel Astiz y Munitibar que hablan de pruebas y concursos de jota organiza-

Esan dogu zelako artu emon zabalak eta sakanak izan ebazan periodista eta izparlariakaz. Emen daukagu jose Luis Bengoa Zubizarreta'rena, idi-demak eta dantza-sariketak eratzeagaitik eskerrak emon eta orretan sendo jarraitzeko eskatzen dautsona. Baita Bizkai'ko Aurrezki-Kutxak argitaratzen dauan "Temas Vizcaínos" aldizkarian sartu bear leukela eta SER irratian ekiñaldi bat eskiñi bear letxikiola diñoana. Ez dira atzean geratzen olako eskariak egiten eta zorionak emoten dautsoez.

Aldundiko Lendakari jzan zan jose M.-Makua'k Iñaki Deunaren egunean Bilbao'ko Gotzain-Eleizan eta Aldundian egiten diran ekiñaldietara deia egiten dautso. Balendin Lasuen'ek be zorionak emoten dautsoz.

Xalba Arrióla'k Maruri'n egindako jdi-demen ondoren esker ona agertzen dautso, jose M.-Kareaga'k omenaldi-egunean beronek atera bear leukela balioa San Mames'en diñotso. Serapio eta onen etxeakoak 1974n. urtean esker ona agertzen dautsoe. Rubén Berriz'ko abadeak be bai.

Lizundia'tar jose Luis'ek be sarritan beronek daukan jokabideaz kritikua izan dala baiña omenaldi-egunean batera datorrela diñotso.

Mogrobejo'tar Endika abizenen aztertzaile ta Ikurdien egille danak be zorion gutuna egin eutsen. Bizkai'ko Aurrezki Kutxaren izenean Garate'tar Anjel be beronen ondoan daukagu.

Ezin aitzu zerrenda luze onetan Anton Aurre'ren zorionak. Anton gizon errizalea eta aspaldion gaisorik daukaguna, Bizkai'ko Batzar Nagusietako Buru izandakoa, bertsoz dator zorionak emotera.

Beste eskutitz bitxi bat joseph O. Sarria'k, Pensylvania'ko Banc'en izenean eskerrak emonez idatzi eutsan, egin eban ibillaldi baten lagun izan ebalako.

Eta amaitzeko, Erromatik 1982n. urteko abenduan II Juan Paulo Aita Santuaren izenean idazten dau Beatriz deritxon lekaimeak eta auxe diño: "España'tik etorri danean II Juan Paul Aita Santuak bere bedeinkapena bialtzen dautzu. Zure zuzenbidea ez dakian lez, neu artu nindun idazkari lez. Omen aundia au nitzat! Biotzez.

dos o de jose Luis Bengoa Zubizarreta que le anima en su labor en favor de los Subnormales del Duranguésado y pide alguno de ellos que el homenaje debiera de ser en San Mames con un saque de honor y con una entrevista de Cadena SER o que debiera ser incluido en la maravillosa colección de Temas Vizcaínos de la C.A.V.

- D. Jose María Macuá le invita a la fiesta en honor de San Ignacio.

- Valentín Lasuen le felicita por sus actuaciones.

- Xalba Arrióla le agradece la organización de Pruebas en Maruri.

- Jose María Kareaga le propone el saque de honor en San Mames.

- Serapio y sus familiares en 1974 manifiestan gratitud.

- Rubén, párroco de Berriz le agradece su ayuda.

- Jose Luis Lizundia reconoce haber sido crítico con su actuación pero se une al homenaje.

- Endika Mogrobejo, especialista en heráldica le felicita.

- De la Caja de Ahorros Vizcaína Ángel Garate se une al homenaje.

- Antón Aurre, presidente de las Juntas Generales de Bizkaia le envía unos versos de felicitación maravillosos.

- Joseph O. Sarria desde Pensylvania Bane le agradece su acompañamiento en el viaje por estas tierras.

- Por fin, omitiendo muchas más misivas, desde Roma, en nombre de Juan Pablo II, en diciembre de 1982, la hermana Beatriz le dice:

"A su regreso de España, el Santo Padre Juan Pablo II os envía su bendición. Por ignorar él vuestra dirección, me cogió como Secretaria: ¡Qué honor! Cordialmente" Beatriz.

\* \* \*

## ORAIN ZER?

## Y... AHORA ¿QUÉ?

Berez ekintzaillea dan gizon batek ainbeste urtetan egindako alegiñak eta burututako ekin tzak ezin sartu leiz onen lako liburutxu baten. Lan asko eta ikuspegi asko- tatic ikusiak izan dira, baiña beste asko gera- tzen diran isilllean.

Baiña gaurko giro one- tara eldu gara eta Eduar- do'ren urteak be aurrera joan dira. Orain zer egin bear dogu?

Or agertu dira egin lei- kezan ekintza batzuk: San Mames'en omenal- dia eta asikerako sakea, kale baten izena berari eskiñi, Irratian, edo tele- bistan, solasaldi bat... Olako ekintzak eta beste batzuk asmatu leikez erriak, baiña goazen barrurago eta atera dai-

guzan gaur bete bear doguzan egitekoak eta jokabideak.

Lenengo, berak erriaren eta batez be erriko beartsuen alde aalegiña egiteko eredua emon dausku. Ez dagizun aitzu.

Bigarren, norberkeri barik eta zeatz jokatzea agertu dausku.

Irugarren, eritxietan beti batera etorri ez arren, alkartuta jokatzeke bidea zabaldu dausku.


Laugarren, inguruan eta beti, baiña batez be jaietan, umore ona zabaltzen ikusi dogu.

Bostgarren, beti errira begira eta bear-izana zein dan aztertzen agertu da.

Seigarren, datorren laguntza, artzen ikusi dogu.

Jokabide guzti oneik erritar guztiontzat jarraide izan bear dabe, erri batua, alaia eta alkar-lagun- tzaillea izan gaitezcan.

Eduardo Urzelai! Danagaitik, erriaren izenean, eskerrik asko!



/ 1979: Erriko jaietara aizkolariak ekarri ebazan

No es posible resumir en un breve folleto las actividades de un hombre activo en una vida larga. Además hay muchos puntos de vista para estas actividades. Por eso, queda mucho más que decir.

Pero hemos llegado a estos días nuestros y los años de Eduardo han avanzado. Nos podemos preguntar: ¿Qué nos corresponde hacer ahora?

Han quedado insinua- das algunas iniciativas que quizá hayan quedado desfasadas: Homenaje en San Mames con saque de honor incluido, dedicarle una calle en el pueblo, entrevista en radio, o televisión... Y habrá más iniciativas que la imagina-

ción del pueblo puede sugerir. Pero "al meollo entremos". Saquemos algunas enseñanzas.

- Primero: Tener presentes todas las necesida- des personales y sociales.

- Segundo: Una actuación sin egoísmo y lim- pia.

-Tercero: Trabajar juntos aun siendo divergentes las opiniones.

- Cuarto: Crear ambiente de alegría y buen humor.

- Quinto: Buscar el bien dei pueblo y llenar sus vacíos.

- Sexto: Colaborar en todas las ofertas de ayuda, especialmente en la organización de las fiestas.

Estas y parecidas actitudes deben ser como caminos marcados para que seamos pueblo unido y alegre en la mutua ayuda.

¡Eduardo Urzelai! Por todo y en nombre del pueblo de Berriz. ¡Gracias! ¡Muchas gracias! ¡Eskerrik asko!